anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2015eko apirilaren 10a
13. urtea
584. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kultura

Munduko ipuin kontalarien jaialdian parte hartuko dute Berrizek, Durangok eta Elorriok > 11

Astepen txarto dauden etxeak botako dituzte

Zornotzako Udalak kaltetuta dauden etxeen jabetza lortu gura du. Etxeak eraitsi, eta espazio horretan azpiegitura publikoak eraikitzea da asmoa

Hamaika familia bizi ziren Astepeko bizilekuak egoera txarrean daudela azaleratu zuen iazko azterketa batek. Termitak dituzte. Eraikina saneatzea ia etxebizitzek balio dutena baino garestiagoa da. Horregatik, udalak esku hartzea erabaki du. Etxebizitza horien jabetza lortu gura du, ondoren eraitsi, eta zoru horretan azpiegitura publikoak egiteko. Prozesu hori abiatzeko lehen pausoa onartu zuten azken udalbatzarrean: arau subsidiarioen aldaketa bat. Udalaren asmoak eragindako familia guztien onespena duela adierazi du David Latxaga alkateak. >4

Lehior Elorriaga

BTT Durangaldea, kirolarien zein familien gozamenerako

Abadiñoko Tornosolo trinketean harrera-lekua izango duen BTT Durangaldea proiektua azken fasean sartu da. Erabiltzaile guztien beharretara egokitutako hamabost ibilbidek Durangaldeaz gozatzeko aukera eskainiko dute. >3

Elorrio > 9
Pulla-Azkarretako plana onartu du udalak azken udalbatzarrean

Abadiño > 6
Hainbat udal zerbitzu abade etxera eramango dituzte

Durangaldea > 2
Bosgarren kontainerra zabaldu dute beste lau herritara

Zaldibar > 6
Zaldibar 'Fracking gabeko udalerri' izendatu dute

Herririk herri

Landare eta lorezaintza azoka egingo dute hirugarrenez

GARAI M.O.

Apirilaren 19an, III. Landare eta Lorezaintza Azoka egingo dute Garain, udalak, Trumoitte kultur elkarteak eta Urkiola landa garapen elkarteak antolatuta. Goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean, landareekin eta lorezaintzagaz lotutako hogei bat postu ipiniko dituzte herrigunean. Mota askotako landareak eta lanerako tresnak egongo dira ikusgai, besteak beste. Gainera, ogia, gazta eta sagardoa zein txakolina ere salduko dituzte hiru postutan.

Bestalde, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajistak berbaldia emango du 11:00etan, eta ortuko zein lorategiko beharrerako aholkuak eskainiko ditu.

Zahartze aktiboa bultzatzeko, Gernikatik Berrizera oinez

BERRIZ Amaia Ugalde

Apirilaren 18an, Gernikan hasi eta Oiztik pasatuta, ibilaldia egingo dute Berrizera, Gure Izerdia nagusien elkarteak antolatuta. Elkarteak hogeigarren urtez antolatu du irteera berezi hau, eta Durangaldeko Bizidun elkarteak ere parte hartuko du zahartze aktiboa bultzatzeko ibilaldian.

Ibilbide bi egongo dira: laburra, 14 kilometrokoa, eta luzea, 23koa. Gernikara autobusez joango dira, Olakuetatik 07:00etan irtenda, eta 07:15ean Durangotik, Madalenatik. Oizen hamaiketakoa egingo dute, eta Berrizen bazkaria, Pedro Juan tabernan. Hilaren 14a baino lehen eman behar da izena.

Hondakin organikoen kontainerra lurretan.

Bosgarren kontainerra beste lau herritara

Atxondon, Elorrion, Zaldibarren eta Abadiñon bosgarren kontainerra ipiniko du Amankomunazgoak

DURANGALDEA M. Onaindia

Azken osoko bilkuran Amankomunazgoaren aurrekontuak onartu zituzten, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Bildu abstenitu egin zen.

6,8 milioi euroko aurrekontua dauka Amankomunazgoak 2015erako, eta horietatik 4,2 erakundeak biltzen dituen herrien ekarpenetik datoz. Gizarte Zerbitzuetako partida %3,9 handitzea onartu dute, eta gizarte larrialdietarako 417.000 euro bideratuko dituzte, adibidez.

Bestalde, zabor bilketari dagokionez, bosgarren edukiontziaren eta autokonpostajearen proiektua Abadiño, Atxondo, Elorrio eta Zaldibarrera zabaltzea erabaki dute. Enplegua bultzatzeko 427.000 euro inbertituko dituzte, Lanbide Ikastetxerako 795.000, euskara sustapenerako 108.000 eta kirol azpiegituretarako 330.000tik gora.

EH Bilduren abstentzioa

EH Bilduk abstentzioaren zergaitiak eman zituen. Arantza Baigorrik, besteak beste, "hasieratik EH Bildurekiko izan den bazterketa" salatu zuen. EAJko Goiztidi Diazen ustez, hori "gezurra" da: "Aurrekontuak azaldu diren batzordeetara etorri ez direnek diote aurrekontuak ez direla parte-hartzaileak izan".

"Gestampen bermatuta daukagu lan karga"

Gestampek inbertsioak egingo ditu Durangaldean

DURANGALDEA M.O.

"Abadiñoko fabrikan hurrengo urteetarako lan karga bermatuta daukagu". Hori adierazi zuen autoentzako metalezko osagarriak lantzen dituen Gestamp enpresako ordezkariak, Francisco José Riberak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batera eginiko agerraldian. Estanpazio beroagaz lotutako linea bat zabalduko dute Abadiñoko fabrikan, Volkswagen eta Opel etxeek eskari gehiago egin dizkietelako. Beraz, albiste ona da enpresarentzat eta beharginentzat, eta baita Gestamp enpresaren inguruan eskualdean lan egiten duten lantegientzat ere.

Joan zen astean egin zuten agerraldia Riberak eta Iñigo Urkullu lehendakariak. Prestakuntzagaz lotutako akordio baten berri ere eman zuten bertan. Gestampek gaur egun mundu mailan dituen beharginak eta inbertsioei esker etorkizunean etorriko direnak prestatzeko Zornotzako Boroan Gestamp Tecnology Institute zentroa zabalduko dute. Adibidez, estanpazio beroaren, laser bidezko mozketaren eta soldaduraren inguruan gehiago ikasteko balioko die zentroak. Urkulluk eskerrak eman zizkion enpresari, erkidegoan egingo dituen inbertsioekin erakutsitako "konpromiso eta ahaleginagatik".

Jaurlaritzak 846.000 euroko laguntza emango dio enpresari urtero, bost urteko tartean.

Urkullu eta Ribera, akordioa sinatzen.

Auto ilara egingo du Sarek sakabanaketaren kontra

Durangaldea auto ilara batek zeharkatuko du 19an

DURANGALDEA M.O.

Duela urtebete jaio zen Sare, euskal presoei ezartzen zaien sakabanaketa politikaren amaiera eskatzeko eta preso zein iheslarien giza eskubideak errespetatzeko exijitzeko. Geroztik zabaltzen joan da sare herritar hori, eta hurrengo asteburuan beste pauso bat emango du. Herririk herri ekitaldiak eta mobilizazioak antolatu dituzte, eta hilaren 19an Durangaldea auto ilara batek zeharkatuko du. Otxandion hasiko da ilara hori, goizeko 11:00etan. Gero, 12:00 aldera, Durangon kalejira bat egingo dute, eta, amaitzean, ekitaldi bat ere bai.

Gaur egungo egoeraren irakurketa egin du Sarek mobilizazioetara deitzeko oharrean. Espainiako eta Frantziako gobernuek sakabanaketa mantentzeko duten jarreraren aurrean, Sarek adierazi du ez duela ulertzen "konponbidea elikatu beharrean oztopo eta trabak jartzea".

Akordioak lortzeko beharra nabarmendu du: "Sakabanaketaren arazoa alderdien eta erakundeen arteko konfrontazio agendatik atera, eta akordioen agendan lehentasuna izatera pasa dadila nahi dugu".

Sakabanaketaren amaiera lortzeko, herritarrak aktibatu gura ditu Sarek. Horregatik, sakabanaketa ezagutarazteko 500.000 liburuxka banatzen dabiltza sarekideak mundu osoan zehar.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko apirilaren 10a,
13. urtea - 584. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Itxaso Martinez de Arenaza Yarza, Amaia Huarte Basabe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde Begoña, Martxel Zubia Arrinda, Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Laguntzaileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Durangaldeko zentroa eta 15 ibilbide sartu gura dituzte BTT Euskadi sarean

Abadiñoko Tornosolo trinketetik abiatuko dira BTT Durangaldea egitasmoko hamabost ibilbideak

Mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasun handia dago Durangaldean. L. Elorriaga

DURANGALDEA J. Guenetxea

Amankomunazgoko arduradunek aurreikusitakoa baino gehiago luzatu den arren, Durangaldeko BTT zentroaren eta ibilbideen proiektuak aurrera jarraitzen du. Durangaldeko mendiko bizikleta proiektua Euskadiko BTT zentroen sarean barneratzeko ahaleginean dabiltza orain. Izan ere, baldintza zehatz batzuk bete behar dira BTT zentroa Eusko Jaurlaritzaren zentro homologatuen sarean sartzeko. Horrela, Busturialdea Urdaibairi, Izki Arabako Mendialdeari, Debabarrenari, Valderejo Añanari eta Tolosaldeari Durangaldeko zentroa gehituko litzaieke. Mendiko bizikleta gogoko duten Durangaldeko zaleak geroago eta gehiago direnez, proiektu honek guztien beharrak asetzea du helburu.

Hamabost ibilbide

Durangaldeko mendiko bizikleta egitasmoak hainbat zailtasun maila eta hainbat luzera dituzten hamabost ibilbide aurreikusten ditu. Guztira, 477,5 kilometro hartzen ditu. Sendo SL ingeniaritza enpresa bide publikoetan oinarritu da ibilbide horiek diseinatzeko. Hilabete batzuk behar izan ditu udal guztiekin hartu-emanean jarri, eta bide guztietatik igarotzeko baimenak lortzeko. Horixe izan da, hain zuzen, proiektua atzeratzeko arrazoia. Ibilbide horiek udalerri hauetatik pasatuko dira: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar eta Zornotza.

Harrera zentroa Abadiñon

Abadiñoko Tornosolo trinketean izango du proiektuak bere harrera gunea. Durangaldeko zentroaren berezitasunetako bat da ibilbide guztiak Tornosolo trinketetik irtengo direla. Bizikletentzako tailerra, txirrindulariak dutxatzeko gunea eta informazioa zabaltzeko harrera-lekua bertan egokitzea da asmoa. Durangaldeko zaleek zein kanpotik etorri daitezkeenek bertan informazioa jaso ahal izango dute.

BTT Euskadiren homologazioa lortu eta gero, proiektuaren azken fasea urrian jarri gura dute martxan Amankomunazgoko arduradunek. Trinketearen egokitzapenera 57.800 euro bideratuko dituzte, eta bideen komunikaziora zein seinaleztapenera 173.030 euro. Beraz, aurreikuspenak betetzen badira, 2016ko lehen zatian proiektua martxan egon daiteke.

"Proiektua bertako zaleentzat zein turistentzat planteatu dugu "

Guillermo Ruiz de Erentxun
Sendo SL enpresako arduraduna

> BTT ibilbideak

Zelan diseinatu dituzue BTT ibilbideak?

Hainbat aditugaz berba egin dugu. Lejarretatarrekin, Durangoko institutuko irakaslea den Mikel Laskurainekin eta leanizbarrutiatarrekin elkartu gara. Sapubike elkarteagaz ere hartu-emana izan dugu.

Zer zailtasun aurkitu duzue?

Hau proiektu instituzional bat da, eta Basquetourreko BTT zentro homologatuetan sartzeko lan burokratiko handia egin behar izan dugu. Bideek publikotasuna behar dute, eta ezin da bide pribatu baten gainetik egin. Gure lan nagusia horixe izan da. Beraz, udalez udal joan gara Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteagaz batera bideen publikotasuna argitzen. Ez da batere lan erraza izan, bideen inbentarioak kasu askotan egin gabe egon direlako. Esate baterako, Abadiñoko Mendiola auzoko galtzada erromatarra teorian ez da publikoa, ez dagoelako inbentariorik. Beraz, bide horien erabilera publikoa eskatu dugu.

Hamabost ibilbideek zelako ezaugarriak dituzte?

Familientzat zailtasun gutxiko ibilbideak egongo dira, kolore berdekoak. Urdinak, luzetxoagoak eta aldapa gehiagokoak izango dira. Gorriak prestatutako jendearentzat dira. Eta zailenak, ostera, beltzak dira.

Zein nabarmenduko zenuke?

Mari izena duen ibilbidea nabarmenduko nuke, beltza. Durangalde osoa inguratzen du (102 km). Durango, Izurtza, Mañaria, Saibi, Urkiola, Udalatx, Elorrio, Intxorta eta Oiz aldea. Arrakasta gehien duena da. Izan ere, proiektu hau guk ez dugu bertako jendearentzat bakarrik planteatu. Kanpotik datozenentzat ere bada, turismoari begira.

PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GURE IKASLEEN AHOTAN

"Irakasleen gertutasuna azpimarratuko nuke"

Irene Uribelarrea Industria Antolakuntzako Ingeniaritza graduko 3.maila ikasten ari da, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoan.

·Zergatik aukeratu zenuen Industri Antolakuntzako Ingeniaritza? Eta zergatik MUn?

Gehien bat Ingeniaritzako berezko gaitasun batzuk jasotzeaz gain, gradu hau kudeaketako gaitasunetara zuzenduta dagoelako. Nik horretan zentratzea nahi nuen, kudeaketa delako benetan gustatzen zaidana, hau da, produktu, makina, lantegi eta prozesuen alderdi teknikoak ezagutzeaz gain, pertsona taldeekin lan egin behar duen ingeniaria, modu horretan enpresa-erabakiak hartzeko.

Mondragon Unibertsitatean alderdi praktikoei garrantzi handia ematen zaie, eta hori gaur egungo egoeran oso garrantzitsua da. Praktikotasun hau, erabilitako metodologia argi ikusten da; lan egin eta aldi berean ikasteko aukera dago, gradu amaierako proiektua enpresa baten egiten da, eta seihilabeteko bakoitzean burutzen diren proiektuak errealitate enpresarialarekin erlazio zuzena izaten dute.

·Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso aberasgarria izan da, bai akademikoki bai pertsonalki. Kurtsoko momentu batzuetan nahiko lanpetuta ibiltzen gara, gehienbat seihilabeteko bukaeretan, proiektua lantzen ari garelako. Baina ikasle eta irakasleen artean daukagun gertutasunari esker, eta ikaskideen arteko erlazio onei esker, esperientzia oso baliotsuak izaten dira.

·MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna?,

Gehienbat irakasleek ikasleekiko duten gertutasuna aipatzeko puntu garrantzitsu bat dela uste dut. Honetaz gain, ikasitako guztia praktikan jartze horrek hasiera batetik atentzioa deitu zidan agian beste leku batzuetan aurkitu ez daitekeen metodologia delako.

·Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Gradu amaierako proiektua egiteko aukera ezberdinak dauzkat. Inguruko enpresa baten urte bateko proiektua egitea, atzerrira unibertsitate batean lehen seihilekoa egitea, edo urte osoko proiektua atzerriko enpresa batean egitea. Nire kasuan, atzerriko enpresa baten egitea gustatuko litzaidake. Ondoren, enpresen kudeaketaren inguruko master bat egitea gustatuko litzaidake, eta hizkuntza ezberdinen maila hobetzen jarraitu.

www.mondragon.edu/prest

Astepen txarto dauden etxeak botatzeko prozesua hasi dute

Etxeen jabetza lortu, etxeak eraitsi, eta azpiegitura publikoak egin gura dituzte

ZORNOTZA Joseba Derteano

Iaz udalak egindako ikerketa batek azaleratu zuenez, hamaika familia bizi ziren Astepeko etxebizitza batzuk egoera txarrean daude. Termitak dituzte. Eraikina saneatzeak kostu handia izango luke, kasik etxebizitzen balioa bera baino handiagoa. Etxeak pribatuak direnez, jabeei dagokie konponketen kargu egitea, baina askok ez dute horretarako baliabiderik. Testuingurua ikusita, udalak esku hartzea erabaki du: jabeei eraikin horiek erosi, ondoren eraitsi, eta gune horretan azpiegitura publikoak egitea da asmoa.

Horretarako lehen urratsa eman zuten azken udalbatzarrean. Etxebizitza horiek dauden zorua bizitegi gune izatetik zoru publikoa izatera pasatzeko arau subsidiarioan egin beharreko aldaketa aho batez onartu zuten behinbehinean. Alegazioei erantzun, eta dagozkien erakundeetako onespenak lortu ostean, behin betiko onartuko dute.

Etxebizitzen jabeekin berba egin dute, eta "denak daude ados irtenbide horregaz", David Latxaga alkateak azaldu duenez. Etxeen jabetza lortzeko desjabetzearen bidea hautatu dute: "Bide hori erabilita, babeseko etxebizitza bat eskuratzeko interesa duten jabeek lehentasuna izatea ahalbidetzen du legeak", dio Amagoia Madariaga zinegotziak. Udalak zoru horretan, seguruenik, aparkaleku bat egingo du, aparkatzeko dauden arazoak konpondu guran; gaur egun leku berean dagoen umeentzako parkea handitzeko ere erabiliko dute gune hori.

Astepe auzoko hamaika familia bizi ziren eraikinean termitak daude.

Txakurrak solte uzteko gunea prest Betarraganen

ZORNOTZA J.D.

Txakurrak uhalik gabe ibiltzeko gune bat inauguratu dute Zornotzan. Betarragane urbanizazioaren eta autopistaren artean dagoen 6.000 metro karratuko gune bat atondu dute horretarako. Txakurrak solte ibili daitezke bertan, arriskutsutzat sailkatutako txakurrak salbu: horiek lotuta ibili beharko dute. Txakurrentzako gunea eguneko 24 orduetan dago zabalik.

Udal ordezkariak herriko txakurren hainbat jabegaz batu dira haien beharrizanak lehen eskutik jasotzeko. Iritzi horiek aintzat hartuta atondu dute txakurrentzako gunea. Udal ordezkarien esanetan, lanik handiena ingurua txukuntzeak ekarri du: sastrakak ebaki, belarra erein, argiteria jarri eta zuhaitzak landatu, esaterako. 30.000 euro erabili dituzte horretarako. Ondoren, inguru hori txakurrentzako gune bihurtzeko –itxiturak eta iturri bat jartzeko, adibidez– 10.000 euro inbertitu dituzte.

Oinezkoari lehentasuna osasun zentro inguruan

Bulebar baten itxura eman gura diote urbanizazioari

San Juan eta San Miguel kaleek bat egiten duten biribilgunea.

ZORNOTZA J.D.

Osasun zentroaren ondoko San Miguel eta San Juan kaleak berriz urbanizatuko dituzte. Trafikora bideratutako espazioa txikitu, eta oinezkoentzako espaloiak eta azpiegiturak handituko dituzte, inguruari bulebar baten itxura eman nahian.

Osasun zentro berriak eskatzen duen urbanizazio lana inguruari ikuspegi berri bat emateko aprobetxatu gura dute. Kale bietan egingo dituzte lanak, baina ez kale osoan, osasun zentroaren inguruko tartean baizik. Oro har, trafikora bideratutako espazioa murriztu, eta oinezkoei zuzendutakoa handituko dute. Espaloiak zabaldu, eta horiek zuhaitz landareak jarrita atonduko dituzte.

Lanek 800.000 euroko kostua izango dute. Prozedura orain abiatuta, lanak 2016ko urtarrilean hastea da asmoa. Bost hileko exekuzio epea izango du. Osasun zentroa bera eta urbanizazio lanak batera amaitzea da helburua.

Bide segurtasuna hobetzeko hainbat neurri abiatu dituzte

ZORNOTZA J.D.

Herrigunean dabiltzan oinezkoen bide segurtasuna hobetzeko hainbat neurri abiatu ditu udalak. Bidean izeneko planaren bidez, airearen kalitatea hobetu, eta trafikoaren zarata gutxitzea ere badute helburu.

Lehen fasea San Pedro kalean hasi dute, trafikorik handiena han dagoelako. Zelaieta parkearen eta Harrison hotelaren ondoko zebra bide biren segurtasuna handitzeko seinale bertikal argidun bat jarri dute, gauez ere ondo ikusteko, eta zoruan argi islatzaileak jarri dituzte. Horregaz batera, herrigunean 30 kilometro ordura mugatuko dute gehienezko abiadura, eta hori islatzen duten seinaleak ipintzen dabiltza.

Bigarren faseak gidariak aparkaleku publikoetara bideratzeko erraztasunak eskaintzea du helburu. Zehazki, herriko hainbat tokitan jarritako panel elektronikoek aparkalekuak non dauden eta uneanunean zenbat plaza libre dauden jakinaraziko dute.

920.000 euroko soberakinagaz itxi du udalak 2014. urtea

ZORNOTZA J.D.

2014ko likidazioa egin ostean, udalak iazko urtea 920.000 euroko soberakinagaz amaitu du, prentsa ohar batean jakinarazi duenez. Hori udalaren finantza eta ekonomia egoera "orekatuaren" isla dela diote udal arduradunek, eta "datozen ekitaldietarako aurreikuspenek entitatearen ekonomia iraunkortasuna bermatzen dute".

> Soberakinak datozen ekitaldietarako entitatearen "iraunkortasuna bermatzen du", adierazi dutenez

Gainera, iaz aurrekontuaren zati handi bat egikaritu ahal izan zuten. Diru atalik garrantzitsuenak "auzokideei zuzenduta egon dira; esaterako, gastu sozialetara eta enplegura". Inbertsioei dagokienez, esaterako, hiru aparkaleku, Nagusi Aretoa eta Eubako erabilera ugariko gunea inauguratu dituzte.

Apirilaren 18an
10:30etik 13:30era

ATE IREKIAK

0-2 tarteko umeentzat

TRAÑA-MATIENAKO HAURRESKOLA

Trañaetxoste, 10
48220 Matiena-Abadiño
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.net

ZELAIETAKO HAURRESKOLA

San Trokaz, z/g
48220 Zelaieta-Abadiño
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.net

Abade etxea konponduko dute, udalaren hainbat zerbitzu bertan eskaintzeko

Gobernu taldeak eta jeltzaleek adosturiko udal aurrekontuan jaso dute abade etxea berrizteko asmoa

ABADIÑO Itsaso Esteban

Martxoaren 31ko osoko bilkuran onartu zuten Abadiñoko Udaleko 2015. urterako aurrekontua. Abadiñoko Independienteak taldeak eta EAJk adosturiko aurrekontu proposamen horren alde bozkatu zuten gobernu taldeak eta jeltzaleek, eta kontra bozkatu zuen Bilduk.

Ia 9,5 milioi eurokoa da, guztira, aurtengo aurrekontura bideratutako zenbatekoa; iazkoa 8,5 milioikoa izan zen.

Udaletxean hainbat hobekuntza lan egiteko diru atalak jasotzen ditu 2015erako udal aurrekontuak.

Gobernu taldeak azpimarratu du 1.022.000 euro bideratuko dituztela aurten inbertsioetara, eta honako hau nabarmendu du: udalaren jabetzakoa den abade etxea berriztuko dute 291.000 euroko inbertsioagaz, eta bertara eramango dituzte udalaren hainbat zerbitzu. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, "udaletxea txiki geratu da, eta alboan, urrats bitara, daukagun eraikinera eramango ditugu udaleko atal batzuk".

Udaletxean hainbat hobekuntza lan egiteko diru atalak ere jasotzen ditu joan zen astean onarturiko aurrekontuak: 73.400 euroko inbertsioa egingo dute igogailua ipintzeko, eta 86.500ekoa teilatua konpontzeko. Bestalde, 291.000 euro inbertitzea ere aurreikusi du Abadiñoko Udalak, etorkizunean "zeregin sozialetarako erabili ahal izango den" 9.000 metro koadroko lur arlo bat erosteko.

Azkenik, 180.000 euro gorde ditu Abadiñoko Udalak 2015eko udal aurrekontuan, Gaztelua auzoko saneamendua hobetzeko lanak egiteko. Hain zuzen, gobernu taldearen aurrekontu proposamena babesteko jeltzaleek ipinitako baldintzetako bat zen sanemaunduko lanena. Hori jakinarazi zuen EAJk martxoaren 31ko udalbatzarraren aurreko agerraldian.

Bilduren kritika

Bilduk uste du aurrekontu proposamena ez dela era parte-hartzailean osatu, eta ez dagoela egungo testuinguru sozioekonomikora moldatuta. Prentsa ohar baten bidez aurreratu zuen Bilduk aurrekontu proposamen horren kontrako bozka emango zuela udalbatzarrean.

Herriko izendegia jendaurrean ikusgai

Kaleen, auzoen, baserrien eta etxeen izenak dira

Gerea auzoko baserrien irudia. Zaloa Fuertes

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko Udala herriko kaleen, auzoen, baserrien eta etxeen izenak eguneratzen eta ofizialtzen dabil. Horretarako, udalak Euskaltzaindiaren gomendioak kontuan hartu ditu. Izendegi hori jendaurrean erakutsiko dute apirilean. Auzoen, kaleen eta baserrien izen zerrenda ikusteko aukera dago udaletxean (10:00etatik 14:00etara), kultur etxean (16:00etatik 20:00etara) eta udalaren webgunean. Herritarrek iritzia eman, eta proposamenak zein alegazioak egin ahal izateko hilabeteko epea dago, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Helduentzako irakurketa kluba apiriletik ekainera bitartean martxan

MALLABIA J.G.

Mallabiko kultur etxeak, irakurzaletasuna bultzatu guran, helduentzako irakurketa kluba jarri du martxan. Taldean parte hartzeko izena ematen duten herritarrak hilean behin elkartuko dira, herriko kultur etxean. Ekimenaren arduradunek azaldu dutenez, apiriletik ekainera jarriko dute ekimena martxan. Euskaraz irakurtzea

> Irakurketa klubean izena emateko aukera dago Mallabiko kultur etxean, apirilaren 16a baino lehen

da ekimenaren beste helburuetako bat. Azaldu dutenez, parte hartzeko, kultur etxean eman behar da izena apirilaren 16a baino lehen.

Plazako lanen bigarren fasea esleitu dute

OTXANDIO J. Derteano

Martxo amaierako udalbatzarrean, Otxandioko udalbatzarrak plazako eraberritze lanen bigarren zatia esleitu zuen. Lan horiek Anton Ruiz de Infante enpresari esleitzea erabaki zuten. Bigarren fasea, batez ere, plazako zoruari dagokio. Arkeologia lanak amaitu ostean, eraberritze lanekin jarraitu dezake udalak. Horrela, arkeologia lanen inguru osoa estali, eta gainean zoru berria jarriko dute. Lanen esleipena ahalik arinen egiten ahaleginduko dira, uztaileko Santa Maña jaietarako prest egon dadin.

Euskaraz Bizi Egunaren harira, familia argazkia

OTXANDIO J.D.

Apirilaren 18rako Euskaraz Bizi Eguna antolatu dute Otxandion, Euskal Herrian Euskarazen eta herriko elkarteen lanari esker. Egun horri begira, gaur, 19:00etan, plazan argazki erraldoi bat ateratzeko deialdia egin dute.

Hilaren 18rako antolatuta dauden askotariko ekitaldien artean eguerdiko herri bazkaria dago. Bazkari horretarako txartelak Otxandioko Fondan eta Txokoan erosi daitezke 12 euroan.

Ostalaritza jarduerak jartzeko aukera zabalagoa

Landaguneetan ostalaritza jarduerak abiatzea zabalduko duen aldaketa onartu dute arauetan

ATXONDO J.D.

Aurrerantzean, ostalaritza jarduerak jartzeko aukera gehiago egongo da Atxondon. Azken udalbatzarrean hori ahalbidetzeko arauen aldaketa puntual bat onartu zuen gobernu taldeak. EAJ abstenitu egin zen.

Aldaketa horren ondorioz, aurrerantzean zoru urbanizagarriak ez diren zoruetan ere ostalaritza jarduerak (landetxeak, esaterako) martxan jarri ahalko dira: hau da, ezingo da eraikin bat hutsetik egiten hasi, baina dagoeneko eraikita daudenetan ostarilaritza jarduera bat ipintzeko lizentzia eskatu ahalko da udalean. Batez ere, landa eremuei eragiten die aldaketak. Horrela, azken urteetan udalean izandako eskaerei erantzun gura diete. Lizentzia lortuta ere, Aldundiaren baldintzak bete behar dira horrelako jarduerak indarrean jartzeko.

Zaldibar 'Fracking gabeko udalerri' izendatu dute

Bilduk eta PSE-EEk babestu dute izendapena

ZALDIBAR I.E,

Udal gobernuko Bilduko sei ordezkarien eta PSE-EEko zinegotzi bien aldeko bozkagaz onartu zuten, joan zen eguazteneko udalbatzarrean, Fracking Ez Durangaldea plataformak aurkezturiko mozioa. Kontrako botoa eman zuten EAJren eta PPren ordezkariek.

Mozio hori onartuta, Durangaldean haustura hidraulikoa edo frackinga erabiltzearen kontra agertu da Zaldibarko udalbatzarra. Gas ez-konbentzionala ustiatzeko teknika horrek ingurumenean eta pertsonen osasunean sortzen dituen kalteak kontuan hartuta, Zaldibar *Fracking gabeko udalerri* izendatzea onartu dute. Batetik, onarturiko mozioak eskatzen du "udalbatzak bere esku dauden urratsak eman ditzala erregai fosiletan oinarritzen den eredu energetikoa gainditzeko", eta, bestetik, "Zaldibar barne hartzen duen Sustraia hidrokarburoen ikerketa baimena bertan behera utzi dezala".

GREMIOEN GIDA

DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdeen eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goieta, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991

LOREZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak
Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Montevideo, 23. 1. ezk
48200 DURANGO
PATXI
696 463 085

ITURGINTZA

urtiaga
Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioan koordinazioa
BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA
Solaguren kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta• Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com
K21

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Profesional onenak zure zerbitzura!

Hamahirugarren aldiz etxean hartuko dituzte ume saharauiak

DURANGO M.O.

Herria auzo elkarteak Oporrak Bakean kanpainagaz bat egin du aurten ere, eta, horrela, udan ume saharauiak etxean hartzeko deia egin du. Dagoeneko, hamahirugarren aldia izango du elkartasun ekimenak Herriaren eskutik. Hauek dira helburu nagusiak: umeek 45 eta 55 gradu arteko tenperaturak saihestea, elikadura egokia eskaintzea, osasun azterketak egitea eta aisialdiaz gozatzea.

Bestalde, saharauien gatazkaren berri emateko balio behar duela ere adierazi dute Herriakoek. "Herri saharauiak duela ia 40 urtetik bizi duen gatazka, egunak pasa ahala, konpontzetik baino hurbilago dago okertzetik".

Udan, hilabete birako etorriko dira umeak Durangora. Herria auzo elkartekoek diotenez, familiek eta norbanakoek hartu ahalko dituzte etxean. Bidaiaren gastuak auzo elkarteak hartuko ditu bere gain, eta udalak ere lagunduko du diruz.

Udalagaz bildu gabe, Aldundiak Tabirako obrak hastea kritikatu dute

PSE-EE eta PP alderdiek diote biribilgunearen proiektuan gabeziak daudela

Orain dela aste bi ekin zien Bizkaiko Foru Aldundiak Tabirako biribilguneko obrei.

DURANGO Jone Guenetxea

Durangoko sozialistek Aldundiari galdetu diote ea zergatik kendu duten arau subsidiarioetan agertzen den Gasteiz bidea kalerako sarbidea Tabirako biribilguneko proiektutik. Pilar Ríos zinegotzi sozialistak salatu du Tabirako biribilguneko obrak arau subsidiarioak eta auzokideen iritzia kontuan hartu gabe hasi izana, eta "Aldundiak erantzunik eman ez izana eta udal gobernuaren inmobilismoa" ere salatu ditu. Sozialistek diotenez, sarritan eskatu diote gobernu taldeari Aldundiagaz berba egin dezan, BI-623 errepideko obretan aldaketak egin ditzan. "Baina ez digute jaramonik egiten, eta adjudikatu duten proiektuak Gasteiz bidea kalerako sarbidea ez du kontuan hartzen. Aldundiaren eta gobernu taldearen utzikeriak, EAJ buru duela, txarto diseinatutako proiektu baten dirua xahutzea eragingo du berriro ere".

"Konpromisoak bete barik"

Juan José Gastañazatorre PP-ko zinegotziak prentsa ohar baten bitartez adierazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren "alde bakarreko" erabakiagaz Durangoko trafikoak "aldaketa sakona" eduki beharko luke. Gainera, Aldundiak proiektu berria diseinatzeko udalagaz batzartzeko konpromisoa hartu zuela adierazi du, baina ez duela bete. "Auzokideek ez dute zertan egoera hau sufritu".

"Oposizioa izanik, ekimena hartu behar izan dugu"

EH Bilduk hamasei mozio aurkeztuko ditu udalean

EH Bilduko zinegotzi batzuek eskainitako prentsaurrekoa.

DURANGO Markel Onaindia

EH Bilduk (Bildu eta Aralar) prentsaurreko baten bidez iragarri du hamasei mozio aurkeztuko dituela, "agintaldia bukatu orduko bete barik eta egiteke geratu diren hainbat gai aurrera eramateko". Mozioak ezohiko bilkura batean eztabaidatzea da koalizioaren asmoa. EAJk agintaldian eginiko gestioagaz kritiko agertu da: "Oposizioa izanik, ekimena hartu behar izan dugu, gobernu taldearen ekimen faltaren aurrean".

EH Bilduko zinegotziek diote "oso adierazgarria" dela 2014. urteko osoko bilkuretan gertatutakoa: "Gobernuak ekarritako erabakiak hauek izan ziren: lau hitzarmen, ordenantza fiskalak, baserri baten erosketa, kreditu aldaketa bat eta tramitezko hamabi erabaki. Guztira, hemeretzi ekimen. EH Bilduk, bakarrik, hemezortzi". Gainera, onartutako hainbat gai ez garatzea leporatu dio koalizioak

> EH Bildu: "Agintaldian, soilik urte batean aurkeztu dituzte aurrekontuak"

EAJri. Bestalde, Plan Orokorra eta aurekontuak ez direla landu ohartarazi du: "Agintaldian, soilik urte batean aurkeztu dituzte aurrekontuak". 2015eko aurrekontu proposamena ez du aurkeztu oraindik gobernu taldeak.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE

Aste Santuak santutik gutxi

Opor-egunak izan ditugu denok, hala sinestunek nola sinesgabeek. Batzuek hondartzan edo mendian hartu dute atseden, edo bisita egin diete lagunei eta familiakoei. Beste batzuk kalera atera dira prozesioetan. Aste Santu guztietan bezala, kaleak jende-uholdez bete dira, fedeak edo ohiturek horretara bultzatuta. Kristoek eta birjinek, penitenteek eta erostariek, argizariak eta erruak mukuru bete dituzte kaleak... Eta hedabideek jendarte kontserbadore, fededun eta patriarkal bat erakutsi digute berriz.

Baina Aste Santu hau aste tragikoa izan da erabat. Genero-indarkeriak 8 biktima utzi ditu: 7 hildako eta 1 ospitaleratuta. Ezin gara beste alde batera begira jarri; aurre egin behar diogu terrorismo matxistari.

Terrorismo matxistak biktimak hiltzen zituen bitartean, Guardia Zibilak iragarki bat argitaratu zuen Twitter kontuan, eta parekatu egin zituen emakumeen aurkako indarkeria matxista eta gizonen aurkako indarkeria. Txio hori argitaratu duenak ez daki zer den genero-indarkeria, ezta hurrik eman ere. Zer-nolako prestakuntza du txio hori idatzi duenak? Zer-nolako sentsibilitatea?

Argi dago premiazko neurriak hartu behar ditugula, eta askoz ere heziketa, prestakuntza eta sentsibilizazio gehiago behar dela. Jendarte honek aurrera egin behar du, ohiturak eta patriarkatua atzean utzita.

Pulla-Azkarretako industriagunearen plana onartu du udalak

97.000 metro karratuko industriagunea sortuko dute Pulla-Azkarretan, zatikako plana onartu ostean

ELORRIO Markel Onaindia

Pulla-Azkarretan 97.000 metro karratuko industriagunea sortuko dute, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean diseinatu zenak segida izango du horrela. Duela urte bitik ibili dira udalean zatikako plana idazten, eta orain aste bi udalbatzarrean onartu zuten behin betiko. Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) lanpostuak sortuko direla nabarmendu zuen: "Herri honen garapen ekonomikorako oso garrantzitsua izango da". Gainera, planak ikuspegi ekologikoa daukala azaldu zuen. Adibidez, industriagunea eta San Antongo etxeen artean tartea sortzeko gaur egungo ortuak eta berdeguneak erabiliko dituzte.

EH Bilduko zinegotziek "baiezko kritikoa" eman zioten planari, aldeko boto batekaz eta bost abstentziogaz. Xabier Orbegozoren ustez, industriagunearena Plan Orokorreko urrats logiko bat da, baina etorkizunerako planik ez egotea eta zenbat lanpostu sortuko diren ez jakitea kritikatu zuen.

Bestalde, PPko Carlos García abstenitu egin zen, gaia hauteskunde aurreko udalbatzarrean lantzeagaz ez dagoelako ados.

HAPOa, Auzitegi Gorenean

Plana behin betiko onartzeko, atzera bota dituzte Auzo Koordinadorak, San Anton Bizirik plataformak eta Elorrixa Ekologia taldeak ipinitako alegazioak.

Pulla-Azkarretako industriagunearen etorkizuneko mapa.

Herritar batena, ostera, partzialki onartu dute.

Auzo Koordinadorako Xabier Zarandonak gogoratu du Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Auzitegi Gorenean errekurritu zutela, eta "arduragabekeria politikoa" iruditu zaio egoera horretan aurrera egitea. Bestalde, planak ingurumen eraginen txostenik ez duela esan du, eta, industria eraikitzekotan, hutsik dagoen lur industrialean egin beharko litzatekeela.

Fytasa fabrikaren egoeraz kezka agertu du EH Bilduk

Ate barik, egoera arriskutsuan dagoela uste du

ELORRIO M.O.

2011n itxi eta gero, hondamen egoeran dago Fytasa galdategiaren fabrika. Atea falta du eremuak, eta EH Bilduk uste du arriskutsua dela. Kezka agertu du koalizioak, lapurrez gainera umeak ere sartzen direlako bertara. Udalbatzarrean gaia azaleratu zuen, eta gobernu taldeari horren inguruan ezer ez egitea leporatu zion. "Udalak zerbait egin behar du atoan", adierazi zuen Idoia Buruagak.

Momentuz, konkurtso administrazio baten esku dago fabrika. Joseba Mujika (EAJ) alkateordeak adierazi zuen badakitela egoera zein den, eta eurak ere arduratuta daudela. Edozelan ere, jabetza pribatukoa izanda, udalak bertan ezin duela nahi eran sartu azaldu zuen, eta "egin behar zutena" egin dutela uste du: "Udalak esan dio administratzaileari egoera hobetzeko neurriak hartu behar dituela. Epaitegi bati ere jakinarazi diogu". Egoeraren berri emanda, erantzun baten zain dago gobernu taldea. Buruagaren ustez, udalak sarrera ixteko zerbait egin dezake.

> Jabetza pribatukoa izanda, udalak bertan ezin duela nahi eran sartu azaldu zuen Mujikak

Udaleko alderdiak kezkatuta daude, Fytasa enpresan jendea sartzen delako.

Errekakaleko jaietan murgildu da herria

Domekara arte luzatuko dira Errekakaleko jaiak

ELORRIO M.O.

Atzo iluntzeko pintxo-poteagaz hasi zituzten Elorrioko Errekakaleko jaiak, eta domekara arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da; batez ere, musikaz. Hamabi tabernaren artean antolatu dute jaietako egitaraua, eta gaur gauean izango du segida kontzertu bigaz: 22:00etan, Tribute to Eskorbuto eta The Mockers taldeek joko dute plazan, eta, 23:00etan, A-Srama Live eta Asian Experience taldeak ariko dira gaztetxean. Bihar, 16:30ean, pilota partiduak eskainiko dituzte pilota eskolakoek, eta Mikel Goñik ere parte hartuko du jaialdian. 18:30ean, erromeria hasiko da, eta, gauez, kontzertu bana egongo da gaztetxean eta Ateneoan. Gaztetxean Anger, Bide Bakarra eta Baghdad taldeek joko dute 23:00etatik aurrera, eta Ateneoan musika elektronikoa ipiniko du Korrupted Brothersek, 00:00etan.

Bestalde, bigarren eskukoen azokaren hamargarren edizioa antolatu dute domekarako, 11:00etatik 15:00etara.

Komun publikoa ipiniko dute Nizeto Urkizun

Udalak 49.700 euro erabiliko ditu inbertsiorako

ELORRIO M.O.

Udalak komun publiko bat ipiniko du Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuan. Erabiltzailea joan ostean, bere kabuz garbitzen den komun horietako bat izango da, udaletik prentsa ohar bidez azaldu dutenez. Gainera, kanpoan hiru pixatoki edukiko ditu.

49.700 euro erabiliko dituzte inbertsioa egiteko, eta Lorke Systems enpresak edukiko du instalazioaren ardura. Obrak ez du hilabete baino gehiago iraungo, udaleko ordezkariek azaldu dutenez.

> Erabiltzailea joan ostean, bere kabuz garbituko den komun bat jarriko du Elorrioko Udalak

Diru-laguntzak etxebizitzak alokairuan hartzeko

IZURTZA J.D.

Azken udalbatzarrean hainbat diru-laguntza onartu zituzten behin-behinean. Horien artean, alokairuan etxebizitza bat hartu gura dutenei zuzendutakoak daude.

Laguntzak jaso ahal izateko baldintzetako bat da etxebizitza Izurtzako udal-mugartean egotea. Etxebizitza alokatzeak dakartzan kostuak ere ezingo du izan hilean 750 euro baino gehiagokoa, eta kontratuak urtebete edo gehiagoko iraupena izan beharko du. Diru-laguntza honen gaineko ordenantza udaletxean ikusi daiteke, udal ordutegian.

Sei hankako txahala jaio da Gaztañatzan

IURRETA Amaia Ugalde

Apirilaren 2an jaio zen txahala, eta bost hanka osorik dauzka; seigarrenaren zati txiki bat dauka mokorrean. Jesus Lizarazu txahalaren jabeak azaldu du ez daukala normal bizitzeko arazorik: "Arineketan ez harrapatzeko moduan egiten du".

Berbaldiak antolatu dituzte herriko nagusientzat

MAÑARIA M.O.

Kontsumobide zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta, nagusientzako informazio berbaldiak antolatzen dabiltza herririk herri, eta Mañaria da herri horietako bat. Hain zuzen ere, berbaldi bi programatu dituzte herriko nagusiei begira. Apirilaren 1ean egin zuten lehenengoa, eta pertsona nagusien segurtasunaren inguruan egin zuten berba.

Bigarren berbaldia hilaren 29an izango da, 17:00etan, eta medikazioa eta automedikazioa izango dira jorratuko dituzten gaiak.

Hauteskundeak

Durango aldatu gura du Herriaren Eskubideak

Julián Ríos da Herriaren Eskubideko alkategaia

DURANGO Markel Onaindia

Herriaren Eskubidea plataformak badauka zerrenda Durangon. Durangaldeko Podemos Ahal Duguren bultzadagaz eta hainbat herritarren parte-hartzeagaz jaio da, eta Julián Ríos, Durangoko Podemoseko idazkaria, izango da alkategaia. Durangori begira lan egingo dutela eta aldaketa eman behar dela uste dute. Euren plataforma independentea dela esan dute, "injerentzia bakoa".

Proposatutako neurrien artean daude alkatearen soldata (74.000 euro) %33 bajatzea eta liberatutako zinegotziena (56.000 euro) %50 bajatzea. Aurreztutako dirua gizarte bazterketa egoeran daudenei laguntzeko erabiliko lukete.

Bestalde, partaidetza eta gardentasuna dira Herriaren Eskubidea plataformaren beste oinarri batzuk. Politika "sakonetik" aldatzea beharrezko ikusten dute, eta lau urterik behin botoa ematea gutxi iruditzen zaie. Horregatik, erreferendumak eta auzo kontseiluak egitea proposatu dute. Euskara, etxebizitza, udal ekipamenduak eta garraio publikoak ere badaude euren arduren artean. Berdintasuna, ostera, zeharkako gaia dela uste dute, arlo guztietan landu beharrekoa.

Neskutz Rodriguez eta Julián Ríos, aurkezpenean.

Hautagaiak aurkezten hasiko da EH Bildu

DURANGO M.O.

EH Bildu koalizioa datozen egunetan hasiko da hautagaiak aurkezten –orain arte Zornotzako Urko Lopez bakarrik aurkeztu du–. Bihar Durangoko zerrendaren aurkezpena egingo du, 10:00etan, Plateruenean, eta lantaldeka landu duten programaren berri ere emango du. Abadiñon ere antzeko deialdia egin du 12:00etarako, Txanporta kultur etxean.

Martitzenean, Elorrion egingo du EH Bilduk zerrendaren aurkezpen ekitaldia, 19:30ean, Arriolan. Zaldibarrekoen txanda hilaren 17an izango da, 19:00etan, udaletxe aurreko plazan.

Omnia taldearen alkategaia izango da Villanueva

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Omnia taldeak udal hauteskundeetara aurkeztuko duen alkategaia aukeratzeko egindako bozketan botoen %75 jasota,

Miguel Angel VILLANUEVA

Miguel Angel Villanueva 38 urteko enpresaria izango da talde horren alkategaia. Ohar batean jakinarazi dutenez, udal hauteskundeetara aurkeztuko duten zerrenda osatzen hasiko da orain Omnia.

Alba Gutierrez da Hiri Ekimenaren alkategaia

ZORNOTZA J. Derteano

Primarioen ostean, erabakita dago Hiri Ekimena plataformako hautagaien zerrenda. Alba Gutierrez 28 urteko zornotzarra izango da alkategaia. Aurreko hauteskundeetan Ezker Batuagaz aurkeztu zen Durangon. Zerrenda honako lagun hauek osatzen dute: Abel Isasik, Nerea Brionesek, Ruben Isasik, Oskar Domingok eta Ramón Juradok. Briones durangarra da, eta gainerakoak zornotzarrak dira. Orain 500 sinadura batzeko pro-

Alba GUTIERREZ

zesua abiatu dute hilaren 20ra arte. Eguerdiro sinatu daiteke udaletxeko erregistroan (12:00-13:30), eta eguazten arratsaldetan (17:00-19:00) ere bai.

> DURANGALDEA ASTEON

Barreterapia ikastaroa prest

DURANGO > Ibaizabal ikastolan Barreterapia ikastaroa antolatu dute hilaren 17 eta 18rako. 17an 17:00etatik 20:00etara garatuko da, eta 18an 09:00etatik 14:00etara. 946 215 877 telefono zenbakira deitu edo *ikastaroak@ibaizabalikastola.org* helbide elektronikora idatzi behar da izena emateko.

Ebalixu taldearen batzarra, 15ean

ELORRIO > Ebalixu euskara taldeak apirilaren 15ean egingo du hurrengo batzarra, 18:30ean, Ateneoan. Batzarra herriko gazte guztiei zabalik egongo dela azaldu dute taldekideek. Martxoaren 28an aurkeztu zuten taldea dokumental bategaz, eta 120 pertsona batu ziren Arriolan. Gero, gaiaz eztabaidatu zuten 40 lagunek.

Whatsappa, udal informaziorako

ABADIÑO > Telefono mugikorretako Whatsapp aplikazioaren bidez, informazio zerbitzu berria ipini du Abadiñoko Udalak martxan, 688 699 361 telefono zenbakiaren bitartez. Doako mezu horien berehalakotasunari esker, herritarrek udalari edozein gertakari edo beharrizanen berri emateko aukera edukiko dute.

Iritzia

Gutuna

Hemen nago, gauaren erdian, ilargia lagun dudala, zerbait garrantzitsua esateko beharraz. Zure argazki bat alde batera eta ohe hutsa bestera. Bakarrik nago, baina ez naiz bakarrik sentitzen. Zure begirada eta besarkada bakoitza nirekin daramatzat. Atzera begiratu, eta zelan ahaztu duela hamabost urte baino gehiago Intxaurren sartzen ikusi zintudan lehen aldia. Zelan ahaztu oparitu zenidan lehen irribarre hura. Zelan ahaztu gure eskuak lehen aldiz elkartu ziren eguna eta maite ninduzula esan zenidan lehen aldia. Aix!... Ze polita izan zen, laztana!

Sarritan esaten didazu oso harro sentitzen zarela nitaz, baina ez dakizu benetan harro sentitzen dena eta miresten zaituena ni neu naizela. Egun ilunetan, gozo-gozo hitz eginez lasaitzen nauzu, bihar ere eguzkia irtengo dela esanez. Zelan ez zaitut miretsiko, zuk erakutsi didazu eta zer den norbait indar guztiekin maite izatea!

Badakit horrelako aitorpenak ez dituzula oso gustuko, lotsaz beterik koloreak ateratzen baitzaizkizu, baina zuk eta gainontzeko euskal presoen bikoteek hauxe eta gehiago merezi duzue. Nork daki zuek baino hobeto zein gogorra den norbait maite izatea, berarekin egon nahi izatea eta hala ere ezin izatea?

Bihar, gutuntxo hau irakurri ostean, poztuko ninduke jendea zugana hurbildu dela jakiteak, momentuz nik eman ezin dizkizudan besarkadak emateko eta hasieran aipatutako gauza garrantzitsu hori nire ordez esateko: Nire bihotzeko taupada zara, maite zaitut sorgintxo! Maite zaitut *a punta pala*!

Gorka Lupiañez Mintegi, euskal preso politikoa

Bonbardaketa

1937ko martxoaren 31, 08:30 Durangoko kaleetan. Hegazkinek herria alde batetik bestera zeharkatu zuten, azpian zutena txikituz. 17:45ean istorioa errepikatu zen.

Faxistek gerra irabazi eta 36 urtera erregimenak bere burua biziberritzeko prozesua abiarazi zuen: trantsizioa. Herri honen zapalkuntza nazional eta soziala bermatuko zuen sistemaren aurpegi aldaketa. Demokraziaren izenean, gertatutakoaz ahaztu ziren denak, herritarrak ahaztera behartuz, eta gertatutakoaren errelatoa idaztea debekatuz, errelatoak erantzuleak baitzituen.

Egun, martxoaren 31 oroimen eguna da gurean. Baina oroimen ariketa horretan ez gabiltza denok. Nazi jantzitako zinegotziak ditugu herrian. Ez al du inork ezer esan behar? Komunikabideen morbo hutsean geratu behar da guztia? EAJk esatekorik ez duela dio, hala da? Zer du PPk udalean aurkeztutako mozioaren kontra? Inori entzun ez dioguna esatera gatoz: herri honen oroimen-ariketari erasoa da, herri honi egindako erasoa.

Oraindik asko dugu egiteko memoriari dagokionez. Egunaren urteurren ekitaldiek zera erakutsi dute: goizean argazkirako alderdiak izan dira protagonista, arratsaldean herritarrak. Erakunde publikoek ez dute herri honek garatu beharreko errelatoa osatuko, ezta transmititzen denik bermatuko. Herria izan behar da oroimenerako bermea, errelatoaren kontaketa egiten duena, eta historia belaunaldiz belaunaldi garatzen duena. Herriaren bultzadaz, gazteon indarraz, eraikiko dugu Euskal Herria!

Faxismoari ez! Ez dugu ahaztuko! Herria da oroimena!

Martin Loizate, Durangoko Ernairen izenean

ZUZENKETA '1937an exiliatuak' ez zen partilkular batek idatzitako gutuna, ohiko astekariaren kolaboratzaile batena, Jose Luis Lizundia euskaltzainarena, baizik. Leku arazo bategatik gutunen atalean kaleratu genuen.

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215 • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta iritzien erantzukizunik.

Kultura

Munduko kontalarien saioak, Berrizen, Durangon eta Elorrion

Munduko Kontu Kontalariak jaialdia antolatu dute apirilaren 16tik 18rako

> LITERATURA Itsaso Esteban

Helduentzako ipuinak eskaintzera etorriko dira munduko hainbat txokotako bost kontalari Euskal Herriko beste horrenbeste lekutara. Besteak beste, Elorrion, Durangon eta Berrizen eskainiko dituzte saioak.

Portugal, Alemania, Galizia, Ekuador eta Euskal Herriko kontalarien jarduna izango da Munduko Kontu Kontalariak jaialdiak eskainiko duena. Antolatzaileen berbetan, "gero eta globalizatuagoa eta uniformeagoa den mundu honetan, identitate propioak defendatu, eta memoria kolektiboa mantendu eta zabaltzen" laguntzea da asmoa.

Euren herrialdeetako tradizioko istorioak kontatzera eta gertakariren batzuk era berezian kontatzera etorriko dira kontu kontalariak Euskal Herrira. Luis Correia portugaldarra, Celso F. Sanmartin galiziarra, Angela Arboleda ekuadortarra, Monika Klose alemaniarra eta Josu Kamara euskalduna dira aurten jaialdira gonbidatu dituzten kontalariak.

Apirilaren 16an, Basaurin hasiko da jaialdia eta, 18an, Berrizen amaitu. Saioen ordutegiak *www.mundukokontalariak.com* webgunean daude ikusgai.

Monika Klose kontalari alemaniarra da jaialdiko gonbidatuetako bat.

Euskal Herriaren ordezkaria izango da Josu Camara aktorea Munduko Kontu Kontalariak jaialdian. Apirilaren 17an, 19:00etan, Durangoko Udal Liburutegian eskainiko du umeentzako saioa.

Josu Kamara
Aktorea

Zein izango da zure egitekoa Munduko Kontu Kontalariak jaialdian?

Batetik, euskarazko aurkezpena egingo dut jaialdiko emanaldi guztietan: ipuin giroan aurkeztuko ditut munduko hainbat herrialdetatik etorritako ipuin kontalariak. Bestetik, eta hau nagusiki helduei zuzenduriko jaldia den arren, umeentzako saio bat eskainiko dut Durangoko Udal Liburutegian; salbuespena izango da Durangoko emanaldi hori.

Zer istorio dakarzu Durangoko liburutegira?

Urrezko sagarra da eskainiko dudan ipuinaren izenburua. Joxe Arratibelek bildutako ipuinaren gainean egin dudan moldaketa da. Jatorriz oso klasikoa eta maskulinoa den istorioari genero rolak aldatu dizkiot: emakumerik ez zegoen lekuan, esaterako, Mentxu izeneko pertsonaia sortu dut, sendabelarren gaineko jakintza handia daukan emakumea. Istorio honetan Mentxu da zalduna sorgin baten atzaparretatik salbatzen duena. Ez da emakume pasiboa, eta justizia ekintzetan bera da pertsonaia aktiboa.

Zelan hartzen dute umeek Mentxuren istorioa?

Umeek primeran ulertzen dute, eta, gainera, asko gustatzen zaie istorioa: emakumeak horrelako paperetan ikustea eskertzen dute. Liburutegietan egiten ditudan saioetan probatu dut ipuina, eta arreta handiz jarraitzen dute 5 urtetik gorakoek. Euren parte-hartzetik sortzen dira, gainera, saioaren hainbat elementu.

Zer azpimarratuko zenuke jaialdi honen inguruan?

Uste dut aukera ederra dela helduentzako ipuin kontalaritzaren mundua hobeto ezagutzeko; izan ere, Euskal Herrian ez gaude oso ohituta ipuin kontalarien helduentzako saioak entzutera. Ahozkotasunaren aberastasuna, ahotsaren boterea, era soil eta ederrean erakusten du jaialdiak; kasu batzuetan ipuinak izaten dira entzungai, gertaerak bestetan... Gogoan dut, aurreko edizio batean, Zornotzan entzun nuen kubatar kontalari baten emanaldiak liluratu egin ninduela.

Zapping film laburren lehiaketa egingo dute asteburuan, Duragon

Bihar, 15:00etan hasita, 24 ordu edukiko dituzte parte-hartzaileek filmak sortzeko

> ZINEMA

Durangoko Plateruenean emango diote hasiera, bihar, Zapping film laburren lehiaketari, eta kafe antzokian bertan egingo dute aurkezturiko lanen emanaldia ere, domekan.

Bihar, 15:00etan, Plateruneko anfiteatroan elkartuko dira parte-hartzaileak, film laburren grabazioan jorratu beharko duten gaia eta baldintzak zeintzuk diren ezagutzeko. Hurrengo eguneko 15:00ak arteko tartea edukiko dute gazteek, gehienez ere zortzi minutuko iraupena eduki dezaketen film laburrak pentsatu, grabatu eta editatzeko. Plateruenean entregatu beharko dituzte sorkuntza lanak, domekako 15:00ak baino lehen, Mpeg edo Avi formatuetan.

Bigarren urtea da Zapaburu gazte konpartsako kideek lehiaketa hau antolatzen dutena, eta iaz, lehenengo edizioan, Durangoko institutuan egin zituzten lehiaketara aurkezturiko lanen emanaldia eta sari banaketa. Hamar taldek parte hartu zuten lehenengo edizio horretan.

> Aurrez izenik eman ez arren, gura dutenek bihar bertan ere aukera dute izena emateko

Filmen emanaldirako Durangoko institutua baino gune aproposagoa delakoan, Plateruenean egingo dute lehiaketaren itxiera jaialdia. Domekan, 18:00etan hasiko dute emanaldia, eta, ondoren, sariak banatuko dituzte.

Gazteek gazteentzat

Gazteek gazteentzat sortutako lanen bueltan asteburu bat elkarrekin pasatzeko antolatzen du Zapaburu gazte konpartsak lehiaketa. "Gai baten aterkipean mila aurpegi gorde daitezkeela erakutsi" gura dute lehiaketaren antolatzaileek.

Parte hartzeko, apirilaren 9ra arte eman ahal izan da izena, baina antolatzaileek azpimarratu dutenez, bihar Plateruenera sortzeko gogoz hurreratzen direnek ere ez dute izena emateko arazorik izango. Nahi duten guztiak animatu dituzte Zapaburukoek ekimenean parte hartzera.

Iaz, Durangoko institutuan egin zuten sari banaketa ekitaldia.

'Argia' lanak jaso zuen iaz epaimahaiaren saria.

Haur kantu txapelketan parte hartzera animatu dituzte umeak

6 eta 15 urte arteko eskualdeko haurrei eta gazteei egin diete parte hartzeko deia

> MUSIKA Itsaso Esteban

Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketan parte hartzera deitu dituzte antolatzaileek Durangaldeko ume eta gazteak. Kantatzeko zaletasuna duten 6 eta 15 urte artekoei luzatu diete gonbidapena, txapelketan parte hartzeko izena eman dezaten. Telefonoz (946 743 262 edo 630 476 820 zenbakietan) edo posta elektronikoz (*igonebeloki@gmail.com* helbidean) eman daiteke izena. Horretarako, honako datu hauek helaraztea eskatu dute antolatzaileek: taldearen izena eta taldekideen datuak, helbidea, telefonoa, eta kantuei eta parte hartu gura duten sailari buruzko informazioa.

Instrumentuek lagunduta zein a capella abesten dute kantariek.

Maiatzean egingo dituzte Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako lurraldekako kanporaketa saioak. Bizkaiaren kasuan, Getxon, Gernikan eta Durangon izango dira kanporaketa saio horiek.

Plateruena Kafe Antzokiak hartuko du, maiatzaren 24an, Bizkaiko azken kanporaketa. Epaimahaiak erabakiko du kanporaketa horietatik zeintzuk talde, bikote eta bakarlari sailkatuko diren ekainaren 6an Zallako zinema antzokian egingo duten finalera. Enkanterrietan erabakiko da, beraz, nortzuk izango diren Euskal Herriko finalean Bizkaia ordezkatuko duten abeslariak. Bilboko BBK aretoan jokatuko dute, ekainaren 13an, 17:00etatik aurrera, Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketako finala.

Adinaren arabera, bi taldetan lehiatuko dira abeslariak; batetik, 6tik 11 urtera artekoak eta, bestetik, 12 eta 15 urte bitartekoak. Kantu ezagunekin zein euren sorkuntzekin parte hartzen dute kantariek, a capella zein askotariko intrumentazioaren laguntzagaz.

Hogeita hamar urteko historia dauka txapelketa honek, eta bertan parte hartu eta irabazitakoak dira, esate baterako, Andeka Gorrotxategi Abadiñoko tenorea, eta Amaren Alabak eta Kalakan talde ezagunak. Euskal kantugintzaren aberastasuna gorde eta ezagutaraztea da txapelketa honek duen helburu nagusienetako bat.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA

Bertsolaria

Hariaren bideak

Bilbo lainopeko zapatu batean. Guggenheimen atarian ehunka turista sartu-irtenean, esku batekin guardasolari eta bestearekin mugikorrari helduta *selfy*-ak ateratzen. Museoaren barruan bisitariak atzera-aurreran: katalanez, frantsesez, italieraz, ingelesez, gaztelaniaz... Berbaroa. Lehenengo solairuan, Film & Video aretoa ilunetan. Aretoaren buelta osoan ikusleak isilik-isilik. Korroaren erdian instalazioa: hiruki bat osatzen duten hiru pantaila handi. Pantailan kafe koloreko esku zimurtu bi. Atzamar okertuen artean zotz luze bat jira-biraka. Eta zotzaren bueltan, haria, hari zuri eta mehea. Xumea bezain inpaktantea irudia.

Kimsooja artista hego koreararrak 2010ean hasi zuen *Hariaren bideak* izeneko proiektua: josteari buruzko sei kapitulu filmatu gura ditu, bakoitza munduko txoko batean, eta ondoren ehungintzaren elementu performatibo horiek guztiak mosaiko batean elkartu. Kapituluotako hiru, Perukoa adibidez, Bilbon emango dituzte datorren uztailera arte.

Esku zimurtu haiei begira nengoela, Mari Luz Esteban antropologoari oraintsu entzundakoarekin akordatu nintzen. Arduratuta ei dago Euskal Herrian metafora onak falta ditugulako: "Hari gara" (EH Bildu), "Jostorratza eta haria dantzan ditugu" (Bilgune Feminista), "Erabakia ehuntzen" (Gure Esku Dago), Sare (izena bera)... Estebanen iritziz, jostea (ehuntzea, zein sartzea) ez baita zer berriak sortzea, ezpada zaharrei forma berriak ematea.

Victor Arrizabalagaren 'Hitzen txokoa', Iruñean

Iruñeko gotorlekuan ipini du Arrizabalagak lana

> ERAKUSKETA

Apirilaren 26ra arte, Iruñeko (Nafarroa) gotorlekuan egongo da Victor Arrizabalaga (Mañaria, 1957) artistaren *Hitzen txokoa* erakusketa. Tamaina handiko pieza bakarra da Iruñean ikusgai izango dena: lau metro luze den altzairu beltzeko lana. Arrizabalagak material horregaz egindako metro erdiko luzerako berbekin osaturikoa da eskultura. "Hizkuntza eraikitzeko balio digute berbek, eta obra honetan, hizkuntzak dituen adierazteko aukerez zein mugez gogoeta egin gura dut", adierazi du artistak.

Erakusketaren osagarri, hiru poesia errezitaldi egingo dituzte Iruñeko gotorlekuan. Izan ere, apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolaturiko erakusketa da Iruñekoa. Apirilaren 18an, 18:00etan egingo dute lehenengo irakurraldia.

'Aita gurea' nobela kaleratu du Irasizabal zornotzarrak

Martxoan aurkeztu zuen Irasizabalek lan berria

> LITERATURA

Azken urteetan kaleratu dituen nobelak bezala, genero beltza landu du Iñaki Irasizabal zornotzarrak *Aita Gurea* nobelan. Autogintzarako piezak fabrikatzen dituen lantegi txiki batean kokaturiko istorioa da Irasizabalek oraingoan dakarrena.

Bi enpresari eta haien familiak, eta hainbat behargin dira istorioko protagonistak. Pertsonaia horien arteko gaizki-ulertuak, etsaitasunak, eta hainbat heriotza kontatzen ditu liburuak, eta langileen arteko harremanez, familia-loturez eta drogaren eraginez ere badihardu idazleak. Krimenean baino gehiago, gizartearen argi-ilunetan ipini du arreta Irasizabalek azken lan honetan.

2010. urtean *Gu bezalako heroiak* izenburuko liburua kaleratu zuenetik urtero liburu bat eman du Irasizabalek argitara: *Odolaren deia*, *Bizkarzainaren lehentasunak*, *Orbe auziaren ingurukoak* eta *Igelak benetan hiltzen dira* liburuak kaleratu ditu azken urteotan.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

PEDAGOGIA

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA
Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia
IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

ODONTOLOGIA

clínicadental hortzklinika

B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA
ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

OPTIKA

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

RPS: 162/13

Profesional onenak zure zerbitzura!

Berbaz

Agustí Barrera Puigvi | Arenys de Munteko herritarra | Arenys de Munt, 1941

“Arenys de Munteko galdeketa herritarren antolaketa gaitasunaren adibide da”

Arenys de Munteko (Herrialde Katalanak) independentziaren inguruko galdeketaz egingo du berba Barrerak hilaren 18an, Abadiñon



> BERBAZ Jone Guenetxea

Kataluniako herri galdeketak Arenys de Munt herrian izan zuen sorburua. Katalunian independentziaren inguruan herritarrek martxan jarritako lehenengo ekintza izan zen, 2009an. Baina 8.023 biztanleko herri batean herritarrak zelan mobilizatu ziren herri galdeketa bat antolatzeko? Agustí Barrera izan zen egitasmo horren bultzatzaileetako bat. Barrerak galdeketaren inspiratzaile teorikotzat du bere burua. Apirilaren 18an, 12:00etan, prozesu horren berri emango du Abadiñoko Txanporta kultur etxean, Gure Esku Dago dinamikak gonbidatuta.

Arenys de Muntek zer pauso eman zituen galdeketa egiteko?

Hamar urtean MAPAk (Moviment Arenyenc per l’Autodeterminació) herrian sentsibilizazio kultura landu zuen, batez ere autodeterminazio kontzeptua zabalduz. Autodeterminazioa ulertzen dugu geure burua gobernatzeko gaitasuntzat, Espainiako Estatuaren esku-hartzerik gabe. Era berean, 2009ko ekainaren 4an, J.M. Ximenis CUPeko (Candidatura d’Unitat Popular) errejidoreak mozio bat aurkeztu zuen, 10.000 sinadura bildu zituen ekimen legegile bat babesteko eta 2010eko irailaren 12an autodeterminazioaren inguruko erreferendum bat egiteko.

Zein izan zen mozio horrek udalbatzarrean jaso zuen erantzuna?

Udalbatzarrean mozioa onartu zuten aldeko hamaika botogaz. Arenys de Munt 2000 plataforma independentea, Esquerra Republicana eta Convergencia i Unio alde agertu ziren. PSC-PSOEren ezezko hiru boto jaso zituen. Jendeak ulertu zuen bozketa bat demokrazia lantzeko modu bat dela. Horrela herri-antolaketa prozesu bat jarri zen martxan alderdi politikoetatik kanpo. Esan daiteke kontsulta herritarrek antolakerako duten gaitasunaren adibibe bat izan zela, independentziarako zuten nahia adierazteko gogotsu.

Mozio horretan zer galdera planteatzen zen erreferendumerako?

Ondorengo galdera planteatzen zen: Ados egongo zinateke Katalunia zuzenbide estatu bat izateagaz, independentea, demokratikoa eta soziala, Europako Batasunean integratua?

> *“Bagenekien Estatuaren politika katalanen kontrakoa zela”*

Parlamentura eraman zenuten ekimena. Zelako erantzuna jaso zuen?

2009ko ekainaren 16an Parlamentuko mahaiak ez zuen tramitera onartu. Hori garrantzitsua da, gero denek babestu zutelako galdeketa.

Zelan hartu zenuen parte mugimendu honetan?

Esan daiteke galdeketaren inspiratzaile teorikoa izan nintzela. Gainontzekoak gogaitzen zituena nintzen, eta ikasi eta prestatu egin behar dugula esaten nuen. 2005ean nazioarteko konferentzia bat antolatu genuen zapaldutako herrien inguruan. Euskaldunak, bretoiak eta galiziarrak etorri ziren. Ni oinarrian egon naizen beste herritar bat izan naiz.

Mehatxuak bizi izan zenituzten?

Falange Española-JONS erakundeak telefono bidezko mehatxuak egin zizkien hainbat herritarri, eta pintaketak ere egin zituzten

Hainbat sektoretatik jaso zuen babesa ekimenak?

Galdeketak kultur arloan jaso zuen babes handiena. Idazleak, poetak, abeslari batzuk, unibertsitateko irakasleak... Politikariek erreserbekin jokatu zuten, baina galdeketaren egunean denak etorri ziren herrira argazkia ateratzera, hurrengo egunean hedabideetan irteteko. Ez zekiten oso ondo Arenys de Munt non zegoen, baina denak agertu ziren.

Jendeak zelan bizi izan zuen egun hori?

Jendea ilusioz irten zen kalera. Falangearen mehatxuengatik sortutako beldurra gainditu zuen. Hala ere, giroan tentsioa zegoen. Jendea arduratuta zegoen. Gerra sasoian eta frankismoaren 40 urteetan gertatutakoaren beldur historikoa da hori. Hala ere, kontsulta egunean Mossos d’Escuadrako polizien eta CUPeko kideen artean koordinazio ona izan zuten, eta hiru eta lau falangista talde isolatuta egon ziren. Jendea harro zegoen bozka eman eta herrian sortu eta hazitako ekimen batean parte hartzearren.

Zein izan zen kontsultaren osteko emaitza?

8.023 biztanle ditu herriak, eta parte-hartzea %41ekoa izan zen. %96,2k aldeko bozka eman zuen, %2,3k kontrakoa eta %1,1ek boto zuria eman zuen.

Independentziaren aldeko bozka kopuru horren inguruan zer irakurketa egiten duzu?

2009an ere bagenekien ez zegoela Estatuagaz berba egiteko aukerarik. Bagenekien Estatuaren politika katalanon interesen kontrakoa zela, nazio moduan eta langile klase moduan. Estatua krisi bikoitz batean zegoen: ekonomikoa eta eredu politikoari dagokiona. Ustelkeriak sistema bera baliogabetzen zuen. Estatuak Generalitatea itolarri ekonomikora bideratzen zuen, eta gure duintasunaren kontrako erasotzat hartzen genuen. Sasoi batean, 16.000 milioi euro urteko drainatze fiskalari Estatuak egindako espoliazioa katalanon lanaren emaitza zen, eta trukean ez genuen zerbitzurik jasotzen, Katalunian, hainbat arlotan, defizita eduki arren. Beraz, arazoak konpondu beharrean, Estatuak sortu egiten ditu. Ez dugu estaturik, eta Espainiako Estatua kontra dugu.

Independentziak zer ekarriko lioke Kataluniari?

Besteak beste, gure duintasuna berreskuratzea nazio libre moduan, gure orainari eta etorkizunari buruz erabakitzea, gure eredu sozial eta ekonomikoen inguruan erabakitzeko gaitasuna izatea herritarren interesen arabera, gure nazioarteko politikari buruz eta baliabide naturalaren inguruan erabakitzea, eta gure nazio kulturaleko elementuak bultzatzea.

Kirola

Mavi García | Txirrindularia | Palma (Balearrak), 1984

“Oraingoz, apurka-apurka esperientzia irabaztea da helburua”

Esperientzia handia du korrika eta duatloietan; orain, txirrindularitza probatzen dabil Bizkaia-Durangogaz

> Txirrindularitza **E. Azurmendi**

Mavi García Bizkaia-Durango txirrindularitza taldeak egin duen fitxaketa da. Atletismoari ekin zion kirol ibilbidearen hasieran, baina geroztik duatloian eta triatloian ere badabil, maila onean gainera. Orain, txirrindularitza probatu, eta beste esperientzia bat izan nahi du.

Atletismo, duatloi eta triatloi munduan zabiltza. Nola sartu zinen mundu horretan?

Tiki-txikitatik egin izan dut kirola, asko gustatu izan zait. Adibidez, patinaje artistikoa egin nuen, maila nahiko onean gainera. Baina nekatu egin nintzen kirola egiteaz, eta urte mordoxka eman nuen ezer egin gabe. Gero, tenisean jokatzen hasi nintzen, sasoia berreskuratzeko asmoz. Tenisean hasi aurretik, korrika apur bat egiten nuen berotzeko. Halako batean, mutil batek esan zidan oso ondo egiten nuela korrika, eta ea herri lasterketa batean parte hartzeko gogoa nuen. Baietz erantzun nion, eta milia bateko lasterketa bat egin nuen beragaz. Inoiz ez nuen horrelako lasterketa batean parte hartu, eta hirugarren postuan sailkatu nintzen. Beraz, momentu hartatik aurrera ilusioa piztu zitzaidan, entrenatzen hasi nintzen, eta gaur arte ez naiz gelditu.

Denboraldi honetan Balearretako maratoi erdiko errekorra hautsi duzu. Horren bila zenbiltzan?

Bai; iaz ere horren bila joan nintzen, baina, belauneko lesio txiki bat zela-eta, ezin izan nuen lortu. Beraz, aurtengo denboraldian horretara irten naiz. Banekien lortu nezakeen marka bat zela, baina ez nekien zenbat denboran hobetuko nuen. 10.000 metroko errekorra egina nuen aurrez, eta oso marka ona egin nuen. Balearretako errepideko errekorra ere hautsi nuen; hortaz, ez bazen ezer arrarorik gertatzen, ikusten nuen egin nezakeela.

Distantzia luzeko duatloiko Espainiako txapeldun izan zara orain dela gutxi. Nola bizi izan zenuen momentu hori?

Momentu ederra izan zen. Oso polita. Lasterketa asko gustatu zitzaidan, eta korrika egiteaz disfrutatu egin nuen. Bizikletan ibili beharreko zatian haize gogorra zebilen, eta lasterketa zailtzen zuen hein batean, baina, fisikoki oso ondo sentitzen nintzenez, ez zen oztopo izan niretzat. Nire erritmoa hartu, eta lasterketa guztian oso ondo sentitu nintzen, bukaerara arte. Gainera, helmugan Palmako nire lagunak zeuden, eta hori ere oso hunkigarria izan zen.

Diziplina anitzeko kirolaria zara. Txirrindularitzaren ondorioz, beste kirol mota batzuk uzteko asmoa duzu?

Egia esan, atletismoko klub batean jarraitzen dut, eta aurtengo denboraldirako ditudan konpromisoak betetzeko asmoa daukat: Duatloiko Esprint Estiloko Espainiako Txapelketara joango naiz, eta Europako Distantzia Luzeko Duatloi Txapelketara ere bai. Ez dakit gorputzak erantzungo didan, txirrindularitzako lasterketa asko ditut eta. Baina parte hartzeko helburua, behintzat, badut. Guztia uztartzen saiatuko naiz.

Beste zerbait probatzea izan da, beraz, Durango-Bizkaia txirrindularitza taldeagaz fitxatzea?

Bai, horrelako zerbait. Txirrindularitzarako balio dudan jakiteko asmoz fitxatu dut, orain dela oso gutxi, hiru bat urte, hasi nintzelako txirrindularitzan. Desberdintasun handia dago. Atletismoan oso ondo nabil, baina ziklismoan ere gero eta hobeto; horregatik eduki dut jende guztia animatzeko esaten.

Hainbat lasterketatan ibili zara dagoeneko.

Esaterako, Frantziara joan gara, bertako kopa bat lehiatzera. Aurten gainontzekoen erritmoari eustea espero dut, behintzat. Mallorcan zenbait lasterketa egin izan ditut, baina mutilekin izan dira, eta emakumeen erreferentziarik ez dut izan denboraldia hasi arte.

Duatloietan eta triatloietan dagoen txirrindularitza maila ez da bera izango diziplina honetan.

Bai, badakit. Maila fisikoa dudala badakit, baina ziklismoan hori baino askoz gauza gehiago hartu behar dira kontuan. Atletismoan indartsuenak irabazten du, eta txirrindularitzan ez da horrela. Hemen leku egokia bilatzen jakin behar da, noiz atera behar zaren eta noiz ez. Esperientzia eduki behar da horretan ere, eta nik ez dut. Beraz, ahalegina egingo dut astiro-astiro esperientzia irabazteko eta nola erreakzionatzen dudan jakiteko.

Eta nolatan talde euskaldun batekin?

Balearretan ez dago emakumezkoen talderik txirrundularitzan, ez dago emakumezkoena bakarrik den lasterketarik, beti mutilekin lehiatu behar izaten nintza iritsi zitzaidan. Beraz, eman didaten aukera hau aprobetxatzea erabaki dut, proba modura. Ziklismorako benetan balio dudala ikusten badut, beharbada honen aldeko apustua egingo dut aurrerantzean. Baina, printzipioz, proba moduan hasiko naiz.

Zeintzuk dira talde honetarako jartzen dituzun helburuak?

Lasterketek aurrera egin ahala hasiko naiz helburuak jartzen. Izan ere, oraindik ez dakit zelako maila emango dudan eta besteekiko non nagoen. Estatu mailan ondo ibiliko naizela esango nuke, baina nazioarte mailan hortzak gehiago estutu beharko ditudala uste dut. Baina beno, ikusiko dugu. Oraingoz apurka-apurka esperientzia irabaztea da helburua.

Zein diziplina duzu gustukoen? Zeinetan sentitzen zara erosoen?

Korrika egitea txikitatik izan da nire zaletasuna, eta inoiz ez diot korrika egiteari utziko. Hala ere, azken urtean bizikletari ere gustu handia hartu diot, taldean oso ondo pasatzen dut, eta hobetzen zabiltzala konturatzen bazara, gehiago gustatzen zaizu.

Egiten duzun horretatik bizitzea posible da?

Ez dakit. Baina nire kasuan ia ezinezkoa ikusten dut, 31 urte ditudalako dagoeneko. Baina inoiz ezin da jakin; momentuz, gustatzen zaidana egiten eta disfrutatzen jarraituko dut.

Beteranoen Espainiako Atletismo Txapelketa asteburuan, Durangon

Txapelketa Euskal Herrian antolatzen den lehenengo aldia izango da

Durango Kirol Taldeko eta Amankomunazgoko arduradunak Durangoko atletismo-pistan.

> ATLETISMOA J. Derteano

Durangoko pistak Beteranoen Espainiako Atletismo Txapelketa hartuko du asteburuan. Guztira, 400 parte-hartzaile inguru batzea espero dute, aurreko edozein alditan baino gehiago, antolatzaileen esanetan.

Zapatuan goizez eta arratsaldez lehiatuko dira, eta domekan goizez. Batez ere, proba konbinatuko txapelketa izango da: atleta bakoitza hainbat modalitatetan lehiatu beharko da, eta guztietan lortutako emaitzen arteko batez bestekoa izango da dominak erabakiko dituena. Gizonak hamar modalitatetan lehiatuko dira, eta emakumeak zazpitan. Bost jaurtiketa moten (xabalina, esaterako) txapelketa ere jokatuko dute. Konbinatua ez den bakarra 10.000 metroko lasterketarena izango da.

Horrelako txapelketa bat Euskal Herrian antolatzen den lehenengo aldia dela azpimarratu dute antolatzaileek. Durango Kirol Taldeak (DKT) bost partaide izango ditu, tartean Javier Fontaneda getxoztarra. Korrika mundu mailako atleta onenetakoa da, eta, 52 urtegaz, 10.000 metroko proban urrezko domina janztea du helburu. Jaurtiketen txapelketan Juanjo Mendizabal eta Eva Muñoa elorriarrek, eta Jabier Sobera bilbotarrak parte hartuko dute; zazpiko txapelketan Begoña Martinez durangarra ariko da. Denak DKT taldekoak dira. Ikustekoa izango da Valentin Huch katalanaren jarduna ere jaurtiketan; 95 urtegaz bere adineko munduko errekorra apurtzeko asmoz dator.

Etiopiari laguntzeko

Txapelketaren oihartzuna atletismoak munduko txoko askotan duen garrantzia ezagutarazteko baliatu gura dute antolatzaileek. Bide horretatik, Etiopia Utopia fundazioak egindako *Town of Runners* dokumentala ikusteko aukera egongo da zapatuan, 21:00etan, San Agustin kulturgunean.

Dokumentala Etiopiako Bekoji herrian kokatzen da. Munduko txapeldun asko irten dira handik; Kenesisa Bekele, esaterako. Munduko eremurik pobreenetakoa den horretan, gaztetxoek euren idoloen bidea jarraitzea dute helburu.

Dokumentala ikusteko sarrera doakoa da. Etiopia Utopia fundazioak *merchandising* postu bat ipiniko du San Agustinen. Batutako dirua Etiopian atletismoa sustatzeko erabiliko dute.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez

Errugbia

Historia egiteko prest

Denboraldi hasieran txoko honetatik idaztea egokitu zitzaidanean, itxaropentsu nengoela adierazi nuen. Hainbat arrazoi nituen zantzu hori nuela adierazteko: entrenatzaile berriaren izaera, jokalari beterano batzuen buelta, gazteak hazteko prozesuan egotea... Baina sekulan ez nuen imajinatuko sasoi honetan gizonen Durango Rugby Taldea Ohorezko Mailara igotzeko promozioan arituko zenik. 22 partida jokatu behar izan dituzte, eta inoiz jokatutako errugbirik ederrena ikusteko aukera izan dugu Durangoko errugbizaleok.

Ines Etxegibelen eskutik hasitako ibilbide berri honetan, pausoz pauso joan dira. Defentsan sekulako lana egin, eta entrenamenduan behin eta berriz landu dute defentsa, eta hor ditugu fruituak. Oso zaila da gaur egun talde honi entseguak egitea. Jokalariek argi dute plakaketa bakoitzak baloia berreskuratzeko aukera berria ekar dezakeela. Hor aritzen dira, jo eta ke, pelotoi militarren antzera, posizioa galdu barik, beti metroak irabazteko prest.

Hortik etorri dira garaipen ugari; aurten 22 partidatik 18 irabazi dituzte, eta galdutakoetan azken unera arte irabazteko aukerak izan dituzte.

Gakoa mentalitate aldaketan egon da, jokalari hauek berezkoak dituzten dohainak, batez ere erasorakoak, barneratu izana, defentsa ona erasorako lehen urratsa delako.

Orain lau partida dituzte aurretik, Sevillako Cajasol eta San Cugaten aurka. Lehenengoa asteburu honetan, Sevillan. Eskaera bat besterik ez: jarrai dezagun gozatzen!

Iñigo Elosegui onena Durangoko Tabira Sarian

17 laguneko ihesaldiko esprintean azkarrena izan zen Jon Gilen eta Jokin Aranbururen aurretik

> TXIRRINDULARITZA

Apirilaren 2an jokatu zuten XXI. Tabira Saria. Aurten Euskal Herria Txapelketaren barruko lasterketa izan da, eta 190 txirrindulari batu ditu. Tartean txirrindulari ingeles bi ere ibili dira. Horietako bat, Timothy Jones, protagonista izan zen ihesaldi batean, baina harrapatu egin zuten. Ondoren, 30 laguneko ihesaldia sortu zen, Momoitioko San Juaneko maldek 17an utzi zutena. Horien artean jokatu zen garaipena eta esprintean Iñigo Elosegui (Autonervión Renault) izan zen azkarrena. Jon Gilek eta Jokin Aranburuk osatu zuten podiuma.

Iñigo Elosegui erdian.

Igoera fasea Sevillan hasiko du DRTk

Ohorezko Mailara igotzeko lau final ditu aurretik

> ERRUGBIA

Denboraldi hasieran ametsa zirudiena errealitate bihurtu da. Durango Rugby Taldeak Ohorezko Mailarako igoera fasea hasiko du asteburu honetan.

Hiru taldeko multzo bitan banatuta dago igoera fasea. Zozketa bidez, DRTri Sevillako Cajasol Ciencias eta Kataluniako Sant Cugat taldeak egokitu zaizkio multzoan. Guztira, lau partidu jokatuko ditu.

Lehenengo lehia etxetik kanpora izango du, Sevillan, domeka goizean. DRTk zein Cajasol Cienciasek liga erregularra bigarren amaitu dute hemezortzina garaipenekin. Sant Cugat bere multzoko lider geratu da.

Datorren asteburuan atseden hartuko du Durangoko taldeak. Etxeko partidu biak bata bestearen atzetik etorriko dira; apirilaren 26an, Sant Cugat hartuko du Arripausuetan, eta, maiatzaren 3an, Cajasol Ciencias. Igoera faseko azken partidua maiatzaren 17an jokatuko du, Katalunian. Multzo bietako onenek elkarren kontra jokatuko dute Ohorezko Mailarako igoera, maiatzaren 24an edo 25ean.

· *Etorri ikustera* ·

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrion aukera oso onak!

Durangoko herrigunean

Energia-eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19
Iurreta - Bizkaia
946 916 673

Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

Bola jokoan, aurten, Bizkaiko eta Euskadiko txapeldunak Zornotzan erabakiko dituzte

Bola joko denboraldia azken txanpan sartu da, eta txapelik garrantzitsuenak Zornotzan banatuko dituzte

Iazko Bizkaiko Txapelketako irabazleak.

> BOLA JOKOA J. Derteano

Bola joko denboraldia urteko unerik erabakiorrenera heltzen dabil. Datozen asteetan eskualdeko ligako azken jardunaldiak jokatuko dituzte, eta Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak ere laster datoz. Den-denak Zornotzan erabakiko dira.

Ez da harritzekoa Zornotza bola jokoen txapelketen epizentro bihurtzea, zaletasun handia dago eta. Eskualdeko liga amaitzeko lau jardunaldi falta dira; hurrengo biak datozen zapatu bietan, 16:30ean, jokatuko dituzte San Pedro eta San Bartolome auzoetako bolatokietan. Iaz Gisetza taldeak irabazi zuen eskualdeko liga; Jose Luis Arreguik, Gregorio Zearretak, Jose Miguel Bilbaok, Jokin Arreguik, Iker Zearretak, Beñat Gorospek osatu zuten taldea.

Ondoren, ligak hiru-lau asteko atsedenaldia hartuko du, Bizkaiko txapelketak datozelako. Hain zuzen, apirilaren 25ean eta 26an banakako txapelketa jokatuko dute Gure Kirolak eremuko bolatokian, 16:00etatik 20:00etara. Iaz Ismael Manzanedok irabazi zuen gizonetan, eta Igone Zamalloak emakumeetan.

Ondoren, maiatzaren 9an eta 10ean, binakako txapelketa egongo da jokoan toki berean. Iaz Jose Luis Arregui *Txakalin* eta Pedro Luis Uribarri *Urtain* bolariek osatutako bikoteak jantzi zuen txapela. Aurten ere eurak izango dira faborito nagusiak; guztira, zazpi biderrez irabazi dute Bizkaiko Txapelketa, azken laurak segidan.

Txapelketa bi horietan batutako puntuek Euskadiko Txapelketara sailkatzeko balio dute.

Euskadiko Txapelketa

Aurten Euskadiko Txapelketa Zornotzako Gure Kirolak guneko bolatokian jokatuko dute, ekainaren 6an. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako hamabosna partaide lehiatuko dira. Bizkaian jokatuko dutenez, bertako arauak jarraituz lehiatuko dira. Horregatik, Bizkaiko eta Arabako bikoteak izango dira faborito.

Tabirako-Baqué nagusi nazioarteko torneoan

Gironako torneoa irabazi dute kadete mailan

Kadeteak garaikurragaz bueltatu ziren.

> SASKIBALOIA

Costa Brava Gironako Nazioarteko Saskabaloi Txapelketan emaitza bikainak lortu ditu Tabirako-Baquek. Kadete mailako mutilek torneoa irabazi dute, eta maila bereko neskak hirugarren sailkatu dira.

Txapelketa apirilaren 2tik 4ra jokatu zuten Gironan. 68 taldek parte hartu zuten, hiru mailatan banatuta; kadete, haur eta mini kategorietan. Torneoan, adibidez, ACBn dabiltzan Baskonia, Valladolid eta Canarias kluben harrobiko taldeek jokatu dute; baita Alemaniako talde bik ere.

Tabirako-Baquek lehenengoz parte hartu du torneoan, eta ez da faboritoen artean egon, baina onenen pare ibili da. Kadete mailako mutilen finalean Durangoko taldeak 85-73 menderatu zuen Montgat taldea. Gainera, Markel Mendibek txapelketako jokalaririk onenaren saria jaso zuen.

Udaberriko Klasikoa lehiatuko dute etzi, Zornotzan

> TXIRRINDULARITZA

Domekan, Udaberriko Klasikoaren 61. aldia lehiatuko dute, 09:25ean hasita. Aurten ere ez da Autzaganetik igaroko, bertan egiten dabiltzan lanen ondorioz. Beraz, 171 kilometroko lasterketan bigarren mailako Muniketa izango da mendate bakarra. Hiru biderrez igoko dute; behin Arrianditik eta birritan Zugaztietatik. Hiru igoerak lasterketaren azken 50 kilometroen barruan daude.

Hamabi taldek eta 100 txirrindulari inguruk parte hartuko dute. UCI World Tourreko Movistar izango da talderik indartsuena; Kontinental Profesional mailako Caja Rural taldea kenduta, gainerakoak Kontinental mailako taldeak izango dira.

Goizean, 11:00etatik aurrera, gazteen artean txirrindularitza sustatzeko ginkana bat antolatuko du Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak Zelaieta zentroaren inguruan; 7 eta 17 urte artekoek parte hartu ahal izango dute.

Berrizek hanka eta erdi Bigarren Mailan du zazpi partiduren faltan

> FUTBOLA

